Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Espartza-Zaraitzu



Aurkibidea

Udalerria: Espartza-Zaraitzu

Sarrera



Nafarroako ipar-ekialdean dagoen udalerria da. Zangozako merindadean, Zaraitzuko haranean, Pirinioetatik gertu. Espartza-Zaraitzuren udalerri mugakideak honakoak dira: Iparraldean Orontze, hegoaldean Sartze, ekialdean Bidankoze eta mendebaldean Jaurrieta. XX. mendearen bukaera aldera hil dira azken euskaldunak. Otsagabia eta Jaurrietakoekin batera, Zaraitzuko azkenak ziren.

- **Biztanleak**: 99
- **Euskaldunak**: %8,82

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **4**
- Zintak: **7**
- Pasarteak: **9**
- Transkribatutakoak: **7**
- Audioak: **9**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Aitor Elortzaren Nafarroako grabazioak
- Dialektologia-EHU
- Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Nicolas Elarre Senberoiz (1902)

Espartzan jaioa, Zaraitzun, 1902an. Gurasoak ere biak bertakoak zituen.

Josefa Elizondo Balisa (1892)

Espartzan jaioa, Zaraitzun, 1892an. Gurasoak ere bertakoak zituen.

Dionisia Garate Otxoa (1904)

Espartzan jaioa. Aita ere bertakoa zuen; ama, berriz, Otsagabikoa. Zubialde etxean bizi izan zen.

Lukas Senberoiz Roda (1910-2009)

Espartzan jaioa, Zaraitzun. Aita bertakoazuen eta ama Ezkarozekoa. Nahiz eta euskaraz ulertu eta zerbait jakin, asko kostatzen zitzaion hitz egitea.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Gaztelerazko esaldiaren itzulpenak

- **Hizlaria(k)**: Senberoiz Roda, Lukas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Aitor
- **Erref**: ESZ-001/001
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:06
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Euskara
  Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Gaztelerazko bi esaldi eman eta itzuli egiten ditu. Gero buruz dakien esaldi barregarri bat esaten du.

Transkripzioa
- "Mis amigos y yo vamos al monte".
- "A ver, otra vez, repite".
- "Mis amigos y yo vamos al monte".
- Ene adixkideak eta ni faten gituk... mendiala.
- Mendiala.
- Mendiala.
- Anitz ongi.
- Ene adixkideak "es los amigos". Faten gituk "vamos o hemos ido".
- Mendira "es al monte?" Ongi, ongi.
- "A ver, por ejemplo, mis padres eran muy buenos".
- "Cómo"?
- "Mis padres eran muy buenos".
- Aita ta ama "eran" anitz onik, anitz on.
- "Eran no, izan".
- "¿Eh? ¿Qué he dicho"?
- "Ha dicho eran".
- "Ya ha dicho bien, ya".
- "Eran he dicho"?
- "Si, pero ya ha quitado luego del intermedio el eran".
- [...] "Y dijo": hemendik fateko zeruala badaude hirurehun taberna. Yesus eta berriz Yesus!. "Entonces con redoble".

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Espartza: Eguberrietako ospakizunak abantxu desagertuak

- **Hizlaria(k)**: Garate Otxoa, Dionisia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: ESZ-006/001
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Bera gaztea zenean, eskean irteten ziren Eguberrietan. Ez du euskarazko gabon-kantarik oroitzen. Jada ez duela inorekin euskaraz hitz egiten dio.

Transkripzioa
- Geo nereki deustako´re. Ez dao haurrik!
- Ez.
- Ez mutikorik, eta ez neskatorik, eta deus´e, deus´e!
- Baina hori gazte zelarik? Orduan bai?
- A, orduan bazen, bai.
- Eta zer egiten zen?
- A! Zer egiten zen?
- Bai. Nun eta nola bildu, eta…?
- Etse, etsez etse, etse batetarik berzeala limosna bila, eta gero xuntatzen zen etse batiala eta orduan kan xan guzik.
- Ta kantatzen zen zerbait? Villancicoren bat edo?
- Bai.
- Bai, e?
- Kantatzen zien, bai.
- Bai. Eta nola, nola zen, villancico hura?
- A! Atzerik dago, daude guziak.
- Ea, ea, pentsa beza, pentsa beza, pixkat. A ver xiten denez.
- Ez, ez, ez.
- Ba pollita izanen zen!
- A, atzerik daude guziak, euskara guziak. Ez dut xardokitzen inorekin ere!
- Ez, e?
- Zertako? Nire euskara bukatu da.
- Ba badira, badra, herri gontan oraño´re zera badakiten, e, badakien ba, batzuk?
- Uska, uskaldunak hil dra biak, bata bestearen atzea.
- Bai?
- Así que, ez dago ya uskaldunik keben.
- Semeak pixka bat badaki, e? Semeak pixka bat badaki.
- E!
- E? Nerekin egin du pixka bat! Eta hor baziren kartetan, e, jostaten, edo jostatzen, edo… beste, bertze hiru gizon eta, kaiek eta aditu dielarik eta euskaraz ari ginela, ba hasi dra xardokitzen, pixka bat, euskaraz eta bai, bai, bai. Batek, e, aski ongi egiten zuen. Batek.
- Korrek, […].
- Bai, apal zagon gizon batek. Orduan ez zira, ez zira oroitzen zer kantatzen zen?
- Ez, ez, ez! Ez niz molestatien, errateko. A! Zertako? Ez naiz oroitzen

batere!
- Eta errege bezperan zerbait egiten zen?
- Ez.
- Errege bezperan ez? Cencerrada, o...?
- Hoiek ya, atzerik daude guziak.

2.2. San Juanetan iturrira, begiak bustitzera

- **Hizlaria(k)**: Senberoiz Roda, Lukas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: ESZ-007/001
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:14
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
  Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena**: San Juanetan sua egiten zen bera umea zenean, baina gero galdu egin zen ohitura. Eguna argitu orduko iturrira joaten ziren, batez ere begiak garbitzera.

Transkripzioa
- Ez dakit. Hor, e, San Juan, San Juan e, egunean edo San Juan bezperan, elkitzen zintzen e, etxerik eta egiten zen e, etxe atarietan eta sua?
- Nola? Nola erran duzu? “A ver?”
- San Juan bezperan egiten zen e, sua? Etxe atarietan?
- Bai.
- Bai, e?
- Bai. Ni, ni txiki nintzala(r)ik.
- Bai, e?
- Gero, gero ez.
- Gero ez, e? Eta egiten zelarik, edo egiten zenean, e, mutikoak eta egite, egiten zien, egiten zuten e, jauzi suaren gainian?
- Bai, bai.
- Eta zerbait erraten zuten?
- Ez nau oroitzen, ez.
- “San Juan bezpera, sarna fuera”, edo kalako zerbait?
- “No, que” oroitzen nintzana pues noiz zen? San Juan egunean iduzkia alkitu bage joaten gintzan ugaldiara.
- A!
- Zuk?
- Bai, bai. E, a(d)itu dut zenbait herritan.
- Bai. [...] joaten gintzan ugaldiara, pues, nola esaten ez, “sobre todo” begiak, guzia, baina begiak garbitze(r)a.
- Aaa!
- Betak eta ere bai, baina begiak yago. San Juan goizean, iduzkia alkitu bage.
- Bai, bai, bai.
- “Sin salir el sol.”
- Bai, bai, bai.
- Hori San Juan egunean bai, or(o)itzen naiz ongi.

2.3. Eguberri-egunaren bezpera Espartzan

- **Hizlaria(k)**: Senberoiz Roda, Lukas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: ESZ-007/002
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:01:14. **Bukatu**: 00:04:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena**: Eguberri-egunaren bezperako ohiturak Espartzan.

Transkripzioa
- Badakit! "Por ejem..."
- Ba... euskeraz, “navidad”.
- Egu(b)erri, Egu(b)erri.
- Eguberri.
- Egu(b)erriko kantu zenbait edo?
- Bai, eguberriko...
- Bai, badakizu?
- Bai! Ez, ez, ez. Ez oroitzen naiz. Eguberri, eguberri, [...] da eguberria, guzien jauna sortuta... “pero no, no le voy a dar salida”.
- “Ya.”
- “Es bonito, pero e, de eso ya en el... y alguna hija me pa(rece) que tiene copia de eso, del...”
- Ta ze, elkitzen zintzaen eta etxe, etxerik etxe?
- Bai.
- Bai? Kantuz eta?
- Bai, bai. Kori kantatuz.
- Bai, e?
- Ta orain ya azken urteketan espalderoarekin ta makila bat, apose bat ogiendako, gerren bat txulen xateko ta... za, zali, zali bat? Ez da?
- E... zare.
- Zare bat? Arroltzen...
- Biltzeko, e?
- Gero, xuntaten gintzan guziok etxe batean ta... kan, kor, arroltze pues tortilla ta txula. Eta gero bertze egun batez da “por carnaval, el día San... Martes de carnaval. Entonces se cantaba en vasco también. Iban lo mismo que ahora, los chavales.”
- Bai. Ze, mozorroturik edo? Beztirik, beztiturik?
- A, ez. Espalderoarekin ta makilarekin.
- A! Ta igualtxu: etxez etxe ta kantari.
- Bai. Bai, bai.
- Ta ez zira oroitzen zer kantatzen zuten?
- Ez, ez, ez, ez oroitzen, ez. Ba eguberritik badauke kopia...
- A, bueno, bueno, at(e)rako da, at(e)rako da. Eta aizu, hor bada herririk pixkat e, goitixeago, ermitara. E, San Tirso.
- Bai.
- Ta... horrek ere badu bere kantua edo?
- Ez, ez.
- Ez duzu ezagutzen? Ez.
- Ez, ez dut.
- A.
- Ez. Katua usatzen e... erraz.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Espartza Eguberrietan (ESZ-005/001)

Eguberrietako ohiturak. Gabon-kanta baten zati bat abesten du. Zer afaltzen zuten Gabon-gauean.

2. "Eguberri, Eguberri" gabon-kanta Espartzan (ESZ-008/001)

"Eguberri, Eguberri" gabon-kanta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-22

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com